

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h** duzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 500 hitz gehienez. 	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	30 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-koaderno **hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

RADIUM GIRLS

1917an *U.S. Radium Corporation* enpresak fabrika bat zabaldu zuen New Jerseyen, *Undark* (ez-iluna) izeneko pintura erradioaktibo distiratsuez erlojuetako orratzak eta zenbakiak margotzeko. Garai hartan ilunpean ikusi ahal ziren erlojuak luxuzko bitxiak ziren, Lehen Mundu Gerran soldaduek frontean erabili arte. Pintura erradioaktiboek esker, ordua gauez ere ikus zitekeenez, oso erabilgarriak ziren, eta militarrek gero eta eskaera handiagoak egiten zituzten. Eskaera horri erantzuteko, 100dik gora neska kontratatu zituzten, esku txikiagoak eta trebeagoak zituztelako lan horretarako.

Neskek erabili beharreko teknika *Lip, dip, paint* zen (Ezpaina, murgildu, margotu). Hau da, lehenik pintzela ahora eraman behar zuten, punta ezpainez bustita, pintzela *Undark* pinturan sartu eta, azkenik, erlojuaren esfera margotu. Behin eta berriro radioaz lan egin ondoren, langileen arropak eta gorputzek ilunpean distira egiten zuten eta *ghost girls* edo «neska mamuak» esaten zieten; gerora, elementu erradioaktiboak bizitza hondatu ziela salatu zutenean, *radium girls* edo «radio neskek» deitu zieten.

Enpresako arduradunek –denak gizonezkoak– bazekiten radioa arriskutsua zela, babes-elementuak erabiltzen baitzituzten radora hurbiltzean. Behin, Sabin A. Von Sochocky, pinturaren asmatzaileak, bisitatu zuen fabrika eta harritu egin zen nesken lan-baldintzak ikusita, baina arduradunek lasai egoteko eta berdin jarraitzeko esan zieten langileei.

Berehala, neskek sintoma fisikoak sentitu zituzten: nekea, anemia, hortzak erortzea,... Enpresak ordaindutako medikuek askotariko diagnostikoak egin zizkieten, baina inoiz ez zuten radioarekin lotu. Amelia Maggia izan zen radioaren ondorioz hiltzen lehena, eta, ofizialki, sifilisak jota hil zen.

Grace Fryerrek kasua epaitegietara eraman zuen beste lau lankiderekin. Laguntzarik gabe, oso zaila zen enpresa handi baten aurka egitea eta bi urtez ez zuten haien alde lan egingo zuen abokaturik lortu. Gauzak aldatu ziren 1928an biktimen zerrendan gizonezko bat sartu zenean, Von Sochocky hil zenean. Orduan onartu zuten arazoaren iturburua radioa zela. Urte berean irabazi zuten epaiketa. Dirutan jasotako kalte-ordainek ezer gutxirako balio izan zieten, bidean galdu ez zirenak hilabete gutxiren buruan hil baitziren. Baina langileen osasuna babesteko legeak bultzatzeko balio izan zuen, behintzat.

IRAZUSTABARRENA, N.

Argia. 2020ko azaroaren 1a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer dio testuak erloju distiratsuez?

- a) Lehen Mundu Gerran asmatu zirela.
- b) Hasieran luxuzko produktuak zirela.
- c) Nesken eskuetan bakarrik ikusten zirela.

2. Zergatik deitzen zieten *ghost girls* fabrikako neskei?

- a) Beren gorputzek ilunpean distira egiten zutelako.
- b) Erabiltzen zuten pintura erradioaktiboa zelako.
- c) Margotzeko erabiltzen zuten pinturak bizitza hondatu zutelako.

3. Zer dio testuak enpresako arduradunei buruz?

- a) Langileek ez bezala, babesteko tresnak erabiltzen zituztela.
- b) Gizon horiek benetan ez zekitela radioa arriskutsua zela.
- c) Pinturaren asmatzailea gonbidatu zutela langileak lasaitzeko.

4. Zer gertatu zitzaien emakume langile horiei?

- a) Azkenean, langile guztiak sifilisak jota hil zirela.
- b) Sintoma fisikoak askoz beranduago agertu zitzaizkiela.
- c) Medikuek ez zituztela gaixotasunak radioarekin erlazionatu.

5. Noiz aldatu ziren gauzak emakume horientzat?

- a) Haien alde lan egingo zuen abokatu bat aurkitu zutenean.
- b) Enpresaren aurka egiteko laguntza lortu zutenean.
- c) Radioaren ondorioz, pinturaren asmatzailea hil zenean.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A HONDARRIBIKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Hondarribiko Udalak jai nagusietako erakusleihen-lehiaketa antolatu du; horretarako, denden jabeak lehiaketan parte hartzea animatzen ditu, dendak jaietako irudi eta koloreez apainduz.

Izen-emateko epea abuztuaren 11n ireki eta 18an itxiko da, eta parte hartu ahal izango dute kalera ematen duen erakusleihoa duten establezimendu guztiek, baldin eta martxan badaude.

Epaimahaiak diseinua, sormena, irudi komertziala eta produktuaren aurkezpena izango ditu kontuan. Erakusleiho onenentzat hiru sari izango dira (450, 300 eta 200 eurokoak). Lehiaketa hau, Gabonetan eta Inauterietan antolatzen dituztenekin batera, herriko merkataritza indartzeko da.

Noticias de Navarra. 2020ko apirila. Egokitua

B BERMEOKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Bermeoko Udalak hirugarren erakusleihen-lehiaketa jarri du martxan. Txapelketan kanpoaldera ematen duen erakusleihoren bat daukaten merkataritzek parte hartu ahal izango dute, eta azaroaren 4tik 11ra izango dute izena emateko aukera. Horretarako, *Berhaz* bulegora hurbildu beharko dira eta dokumentazioa aurkeztu. Aurten, gainera, sari bikainak emango dira. Izan ere, 7.000 euro banatuko dira. Gainera, bozkatuko duten herritarren artean 4 sari zozketatuko dira, bakoitza 250 eurokoa.

Lehiaketak herriko saltokiak indartzea eta herrian kontsumoa bultzatzea du helburu, eta aurtengo gaia honakoa izango da: Bermeoren nortasuna eta izaera.

www.bermeo.eus Egokitua

C AIARAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Aiarako merkataritza-sektorearen irudia hobetzeko helburuarekin, Aiaraldeko Enpresen Koordinaziorako Federazioak Aiarako VI. erakusleihen-lehiaketa antolatu du.

Gaia librea izango da, baina establezimenduan normalean saltzen diren artikuluak edota produktuak agertu beharko dira. Erakusleihoak erakusgai egon beharko dira abenduaren 9tik 19ra. Parte-hartzaile bakoitzak erakusleihoaren argazki bat bidali beharko du gatc@laudiocomercial.com posta elektronikora. Izen-ematea doan da eta honako sari hauek irabazteko aukera egongo da: lehenengo saria 700 euro eta trofeoa, bigarren saria 300 euro eta trofeoa eta hirugarren saria 150 euro eta trofeoa.

www.aiarakoudala.eus Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

6.	Erakusleihoetan salgai dituzten produktuak agertu behar dira.
7.	Parte hartu ahal izateko, establezimenduak zabalik egon behar du.
8.	Herriko jendearen parte-hartzea ere sarituko da.
9.	Ez da urtean zehar antolatzen den erakusleiho-lehiaketa bakarra.
10.	Gaia ez da libre izango, herriaren ezaugarriekin lotura izan behar baitu.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopia**tu.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko**.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.

Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu, **aparteko orrian idatzita aurkituko duzun sarrera kontuan izan gabe**.

GAIA: Administrazio langilea zara, eta, gaur goizean, lagunaren mezu bat jaso duzu.

■ **Hauxe da jaso duzun mezua:**

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are buttons for "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". Below these are fields for "Norentzat:" and "Gaia:". The email body contains the following text in green:

Kaixo, Karme:

Zer moduz? Badakizu denbora luzea daramadala lanik gabe. Hori dela eta, azkenean kasu egingo dizut eta oposizioak prestatzen hasiko naiz. Baina, zalantza handiak ditut eta ez dakit nondik hasi. Zuk orain dela pare bat urte gaitu zenituen, pentsatu dut zure esperientzia kontatu ahal didazula. Nola prestatu zenituen? Akademiaren batera joan zinen? Erraza ala zaila egin zitzaizun gaitzea?...

Zure erantzunaren zain geratzen naiz.

Laster arte.

Gorka

■ **Erantzun** iezaiozu zure lagunari horretarako eman zaizun aparteko orrian. **Kontuan izan mezuaren hasiera dagoeneko idatzita dagoela; beraz, zuk hortik aurrerakoa idatzi behar duzu.**

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «RADIUM GIRLS»

1.	B	2.	A	3.	A	4.	C	5.	C
----	---	----	---	----	---	----	---	----	---

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «ERAKUSLEIHO LEHIAKETAK»

6.	C	7.	A	8.	B	9.	A	10.	B
----	---	----	---	----	---	----	---	-----	---